**SANTA BARBARA'REN MARTIRIYUA**

Santa barbara zure bizitza
kantuz biar det zabaldu
argitasun bat memoriyara
naibadidazu bialdu.
Biotza pozaz mingañak ere
zerbait itz-egindo aldu
ejenplu ori aditu faltan
iñor ez didiyen galdu.

Barbara'k zuen aita pagano
jaunaren bildur gabia,
alabak berriz nayago zuan
kristandadeko legia.
Orientalen batayatu zan
izanik umildakia,
orain zeruan gozatzen dago
bere eternidadia.

Bularrak moztu eta eraman
kalabozuan barrena,
Barbara bere itzian firme
aitak ori zuan pena.
Gobernadore batek eman du
erremateko ordena,
ezpatarekin bertan lepua
kentzia dala onena.

**IPARRAGIRRE ABILLA DELA**

Iparragirre abilla dela
askori diot aditzen
eskola ona eta musika
ori oiekin serbitzen.
Ni ez nazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komediante moduan
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika
bertsolaria gañera
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen ba gera.
Atoz gure kalera
baserritar legera
musika oiek utzita
Erreterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita .

**ERRI FESTA PASAIAN**

Pasaiako erritik · dator notiziya
zezen bat izan dala · jeniyoz biziya:
kantatutzera nua · bixtan ikusiya
konsolatzeko triste · dagoen guziya.

Santiago eguna · Pasaian siñale,
allegatu ez danak · egin beza galde;
asieran jendia · zezenaren alde
azkenian etziran · arrimatu zale.

Torillotik atera · zuten lendabizi
bei zar bat gidariya · bandera ta guzi
arrapatzen zuena · purrukatzen asi,
azkenian kanpora · plazatik igesi.

**IYA GURIAK EGIN DU**

Iya guriak egin du
ba-degu zeñek agindu
ez oraindik umildu
alkarrengana bildu,
gerra nai duan guziya,
berari kendu biziya.

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde
zañek nai duen galde
berari tira dale,
bala bat sartu buruan
aspertuko da orduan.

Gu gera iru probintzi
lengo legerik ez utzi
oyeri firme eutsi
naiz anka bana autzi,
jayoko dira berriyak
gu gera Euskal-Erriyak.

**HURA**

Zeruan ilun eta
laño goiko mendian.
Ez dut hura ikusten
lagunen artian.

Kanpaiaren soñua
aizeak badarama.
Sutondoan triste
dago bere ama.

Ballarako neskatxak
dantzara ez dute nahi
haren oroimena
agertzen da nonnahi.

Mendi soro larreak
urdin eta berdea;
dagoen lekuak
bustin kolorea.

**GARIA SALTZEN**

Garia saltzen nengoelarik
Donostiako kalean
dama gazte bat etorri zitzaidan
garia zenbana nukean.

Besteendako amartaerdian
zuretzat ezkontzordean.
Ezkontzordean balinbadezu
jarzaitez ezkon bidean .

**ABENDUAREN ZAZPIAN**

Abenduaren zazpian
sartu ginaden Frantzian
ogei ta amar lakarri gatz
azukre bien erdian
ustez sekreto andian
pasa ginaden mendian.

Yo genduen Ziburu
ustez guziak seguru
bi gazteak eskongaiak
zarrak ginaden iru
irabazi naiz zerbait diru
kukuak makur yo digu.

**IRUÑAKO FERIETAN**

Iruñako ferietan
iragan San Ferminetan
ehun zaldi arribatu
Andaluziatik tropan
merkatu eder bat zautan
zagolarik bi lerrotan.
Bat zen pikart ta zuria
bota bai nion begia
andaluz batek egin daut
bi untz urheren galdia
eskain orduko erdia
-Hartzak iria duk zaldia.

Han nintzan arrapatua
aginduaz dolutua;
urruntzeko izan banu
hirur arditen lekua
gizonez inguratua
iduri preso artua.

Nonbeitikan goiz aldera
arribatu naiz etchera
anderea jin zerautan argiarekin atera
jarri behorrari beira
ezpaitzen kontent sobera!

-Horiche da behor tcharra
eta bertzalde chacharra!
Hortan gastatu dautazu
familiako beharra;
sal nintzazke sos batera
zaldia eta senharra!

**UTSA**

Euskel sustrai
Erri onen mamia non dago?
Auxe duk nere ustea:
ez cronlech ez dolmenetan
ez arri koxkor zarretan...

Itsaso-bazter etxetan
ta mendi baserrietan,
oraindik bizirik bañan
Uts sakon illupetan
estaltzera dijoakigun
izkuntza gurean...
Mendi-mendian otea,
botoi oriaz betea,
Jorge de Oteiza, i aiz
ola-gizonen semea.
Ire malluak ordea
-irudimenezko mallo orrek-
ez tiriki-taukirik
Ursa moldatzeko joak
ezpaitute soiñurik...
biotzarentzat baizik...

**KONTXEXIRI**

Maite bat maitatzen det maitagarria
begi ederra du ta guztiz argia;
daukat urruti,
bainan ezin det kendu burutik
aren itxura
saldu al baliteke pisura
urriaren truke
nork erosi faltako ez luke.

Ogei ta lau leguaz nago aparte
bitartean ba dauzkat milloi bat ate
guztiak itxirik
nai arren ezin egon ixilik
beti negarrez
bere maite maitearen galdez
ote dan bizi
biotz-biotz nereko Kontxexi.

**PERU GUREA**

Peru gurea Londres-en
zingulun-larrak ekarten
hura handikan etorri arte
guztiok dantza gitezen.
Ai hori egia!
zingulun zangulun Maria.

Kaponak daude erretzen,
oilaskoak mutiltzen,
eztin hark asko orai pentsatzen
onela gerala dantzatzen.
Ai hori egia!
zingulun zangulun Maria.

Nagusia Bitoria-n
plazako ostatu berrian
osoro larrugorrian
sartu zait saski-erdian.
Ai hori egia!
zingulun zangulun Maria.
Neure mutiltxo ttikia
hik esan uen egia
medikuarekin dantzatzen zela
nere emazte Maria.
Ai hori egia!
zingulun zangulun Maria.

**GOIZIAN GOIZIK**

Goizian goizik jeiki ninduzun
ezkontu nintzan goizean
Bai eta ete setaz bestitu
ekia jeiki zanian
Etxekoandere zabal ninduzun
eguerdi erdian
Bai eta ere alargun gazte
ekia sartu zanian.

Zazpi urtez etxeki dizut
gizon hila kanberan
Egunaz lur hotzian
eta gaiaz bi besuen artian.
Zitru hurez ukhuzten nizun
astian egun batian
Astian egun batian
eta ostirale goizian.


**A**

| | |
|---|---|
| SANTA BARBARAREN MARTIRIUA | 2,54 |
| IPARRAGIRRE ABILLA DELA | 2,20 |
| ERRI FESTA PASAIAN | 2,48 |
| IYA GURIAK EGIN DU | 2,31 |
| HURA | 3,55 |

**B**

| | |
|---|---|
| ABENDUAREN ZAZPIAN | 2,34 |
| IRUÑAKO FERIETAN | 3,41 |
| UTSA | 2,22 |
| KONTXESIRI | 2,26 |
| PERU GUREA | 1,42 |



OTS 101
HG-192 L
**iñaki beobide**
grabazioaren arduraduna
33 1/3 r.p.m.

I.G. EL SIGLO XX, S.A. · Av. Fabregada, 2 · Hospitalet